


422 zenbakia, 7800ko irailaren 22a
JARDUN ELKARTEA


Bergarako astekaria

Berriro



Asteburu osoko
punk jaialdia

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

EGUZKIA

EGUZKITAKO

BETAURREKOETAN

DAUDEN DESKONTU HARRIGARRIETAZ BALIA ZATTEZ

DENBORALDI BUKAERAGATIK

%50 arte

R.P.S. N° 164/99

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA

J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



INGELES A FRANTSESA ALEMANA

2000/01 IKASTURTERAKO

MATRIKULA ZABALIK

Ikasturtearen hasiera urriaren 2an

- Filologian lizentziatutako irakasleak, natibo kualifikatuak eta esperientziadunak
- Talde txikiak
- Maila guztiak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez
- Umeendako hasiera-ikastaroak: 6 urtetik aurrera
- Gazte eta nagusientzat
- Azterketa ofizialen prestaketa
- Hiru hilabeteko ikastaro intentsiboak
- Ikastaro trinkoak larunbat goizetan



STONE HOUSE HIZKUNTZAK

HELBIDE BERRIA

Tel.: 943 76 06 87

UNEDetik

Ibargarai 18ra
aldatu gara





Kutsadura

Ane Garciandia / Ikaslea

Euri azidoa, negutegi efektua, ozono geruza... azken urteotan guztion ahotan dabilzan berbak dira.

Badirudi inork ez duela gustoko Doñana edo Erika untxiaren hondamendia- ren inguruko albisteak entzun eta ikus- tea; baina zein da gure jarrera gertaera hauen aurrean? Gaiari buru-belarri mur- gildu aurretik, esan dezadan idazki ho- nen xedea ez dela "Greenpeace" en alde- ko propaganda edo Gobernuaren kontra- ko iraultza bat iltzatzea. Nire helburu ba- karra gure ustezko kontzientzia ekologis- taren herdoila kentzea da.

Kutsaduraren inguruan mintzatuz tal- de ekologistek behin eta berriz diote iza- kiok Lurra planetaren parte garela, eta ez da inongo metafora; hain zuzen ere, giza- kion ur portzentaia %63koa baita eta alga edo marmokena %90era irits daiteke. Argi dago, bada, edozein lantegik isuritako sobrakin kimiko ml bakoitzak gugan era- giten duela; laburki, geure burua kutsa- tzen dihardugula.

Nire iduriz, azken urteotan kutsadura- ren esparruan aurrera eramandako iker- keten datu eta grafikak aipatzeak ez du inolako eraginik izango gure moral inmu- nean; tamalez kutsadurak egunean ehun

milioi arrain hiltzen dituela entzuten ohi- tu baikara.

Baina, nor da egoera honen errudu- na? Gu geu, jaun andreok, eta hau sinest- en ez duenak nahi ez duelako izango da. Esate baterako, etengabe entzuten dira enpresa kimikoak salatzen dituzten ko- mentarioak, eta hauek hartu beharko li- tuzketen neurrien inguruko eztabaidak.

Ados, guztiok gaitzetsi beharko geni- tuzke ekintzok, baina izan gaitezen leia- lak geure buruekiko; zein da gure eran- tzuna? Kritika egitera mugatzen gara, eta ez hori bakarrik, ganbarako armairua za- baldu eta aipatu enpresak sortutako ha- maika produktu aurkituko ditugu. Esa- nak esan, hondakin horien ondorioen ja- be bagara ere, jarrerarik erosoena azal- tzen dugu. Are gehiago, "jar ditzatela de-

"Azken urteotan kutsaduraren esparruan aurrera eramandako ikerketen datu eta grafikak aipatzeak ez du eraginik izango gure moral immunean"

puradorak" edo "Gobernuak isun gogo- rragoak ezar ditzala" bezalako argumen- tuen bitartez geure burua garbitzen dugu.

Edonola ere, ez zaio arrazoirik falta aurreko hori guztia esaten duenari; modu berean, merkeago gertatzen zaio enpre- sari isuna ordaintzea depuradora hiru egunetan lanean mantentzea baino, eta "nolabait" agintari hauen jarrera ulertze- koa da.

Gauzak horrela, interes ekonomikoak ongizate eta bizitzaren gainetik dauden herrialde honetan geuk dugu azken hit- za. Ez legoke gaizki lantegi kutsatzaile hauen produktuak erosteari uko egitea, zerbait aipatzearen: dudarik gabe "Titan- lux" pintura potea "Pintura Ekologikoak" etxekoa baino merkeagoa izango da; bai- na ez al du merezi hamabost pezeta gehiago ordaintzeak gure semeak txitxa- rroak "Aquarium" ean barik itsasoan ikus ditzan?

Esandakoaren arabera, argi dago da- ramagun bidetik ez dugula gauza handi- rik lortuko; ekintzak behar direla, alegia. Gu geu gara kutsadurarekin amaitzeko giltzaren jabe; beraz, mugi gaitezen baso bat ikusteko historiako liburura jo beha- rra izan aurretik!<

barruan



Iñigo Lizarralde

Goitibeherazalea

"Euskal Herriko txapelketa hasi zenean irabazteko aukera genuela ikusi genuen"

20.



Mikel Ibarzabal

Panpingile eta aktorea

"Besterentzat lanean jardun ordez, antzerki talde propioa eduki nahi dugu"

27.



Maider Sedano

Gazte bulegoko arduraduna

"Umore aldaketa haundixak daukat, eta batzuetan alper samarra be banaiz"

29.



BEKAK

Atzerrian ikasteko bekak.
Kanpo Arazoetako Ministerioa
Goi-mailako titulatuak. Udan edo
ikasturtean zehar. Italia, Eskozia,
Portugal, Belgika, Irlanda eta beste
herrialdeetan. Epe ezberdinak.

SARIAK

Jokin Zaitegi Sariketa.
AED Elkartea. Itzulpen laburren
sariketa. Edozein hizkuntzatatik
euskaratutako lanak. Epea: urriak 31.
Antzerki lanak.
Fundación Ciudad de Requena.
16 urtez gorako antzerkigile
guztiantzat. Gaztelaniaz idatzitako eta
sarihu gabeko antzerki lanak aurkeztu
ahal dira; gaia librea. Epea: urriak 31.
Tene Mujika Saria.
Debako Udala. Literatura Saria.
Gaia librea. Epea: azaroak 24.
Ipuinak.
Eibarko Udala. "Gazteen XVI. Ipuin
Lehiaketa". 14-25 urte bitartekoentzat.
Gai librea, euskaraz nahiz gazteleaz.
Epea: abenduak 1.

JARDUNALDIAK

Orainaren begirada.
Euskal Herriko Informatzaile
Grafikoen Elkarte. 40 argazkilariren
lanak Ordiziako Barrena Kultur Etxean,
irailaren 29ra bitartean.
Ingurugiroaren zaintzea.
Euskadiko Unesco Zentrua. Azaroaren
24tik 26ra arte Urdaibaiko erreserban.
Epea: azaroak 24.

LAN-ESKAINTZAK

Zerbitzu anitzeko peoia.
Barañaingo Udala (Nafarroa).
Eskola ziurtagiria. Epea: urriak 8.
Kultura eta kiroleko koordinatzaileak.
Cintruenigo-ko Udala (Nafarroa).
Unibertsitate Titulazioa (goi edo
erdi-mailakoa); B1 gidatzeko baimena
eta kotxea. Epea: urriak 8.
Gizarte laguntzaileak.
Aranguren Bailarako Udala (Nafarroa).
Gizarte laguntzaile titulatuak edo
Gizarte-lanean diplomatuak.
B1 gidatzeko baimena eta kotxea.
Epea: urriak 8.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpeke, Ikasle (ISIC),
Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC)
karnetak eskuratzeko, zatz
Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO
GUNEAK: Kultura Etxeko bulegoa eta
panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30


OHARRA. Bergarako edo inguruko
elkarte, heziketa zentru eta enpresei
eskertuko genizuke Gazte
Informazio Gunera igortzea zuen
ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta
lan-eskaintzen informazioa, bertako
gazteei nahiz probintzia guztikoei
informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Enplastu

Landare xeheuz,
irinez eta abar
egiten den txapla,
gaitzak sendatzeko
gorputzean
ezartzen dena.



-Asa orrixekin
einddako enplastua jartzen dot
sorbaldan da mesede eitten dost.

JOSU OKINA

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
35 °C	15 °C	—
34 °C	16 °C	—
25 °C	16 °C	—
24 °C	15 °C	—
26 °C	11 °C	4,5 l/m ²
21 °C	14 °C	2,1 l/m ²
20 °C	10 °C	—

Farmaziak

Eguakitza 22:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

Zapatua 23:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

Domeka 24:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

Astelehena 25:

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

Martitzena 26:

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

Eguaztena 27:

GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

Eguena 28:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

Ogia

Domeka 24: Konde.

Zozketak

Xamat eta Aritzetaren zozketa.

Txerria edo 50.000 pta.: 1.465

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.

Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean),
Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo
(Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta,
San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga
aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre,
Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta
(Ekonomatoan) eta Zabala jate-
txea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Ola-
tik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta
20:40.

Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubi-
aurre, Martoko, San Antonio, Espoioia
(Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde),
Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amilla-
ga eta San Juan.

Telefonoak

OSASUNA / LARRALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kiroldegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak



Maribel Carazo
22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Larrañaga
22an 26 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Jauregi
27an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Silvia Sebastian
22an 7 urte. Urte askotarako!
Aitonamonak, gurasoak eta izeba Alizia.



Amaia Begiristain
26an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Elene Esnaola
25ean urtebete.
Urte askotarako!
Amama.



Maialen Esnaola
28an 6 urte.
Urte askotarako!
Amama.



Semark Lizarralde
24an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irati Madariaga
25ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Sainz
23an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Ortuzar
24an 4 urte.
Urte askotarako!
Garazi eta etxekoak.




Mikel Arroyo
26an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

ESKER ONA

Nieves Ormazabal Gabilondo

Bergaran hil zen
2000ko irailaren 13an,
88 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta Mizpirualde egoitzakoei
eskerrik asko sendikoen izenean.*

Eskelak, urteurrenekoak eta eskertzak eguazten eguerdira arte hartzen ditugu.



Manu Iztueta
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Miren eta Mikel.



Izaskun Iztueta
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Miren eta Mikel.



Mila Baquerin
25ean 27 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mikel Gantxegi
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Garazi Marzo
26an urtebete.
Urte askotarako!
Aitaxo eta amatxo.



Begoña Barrenetxea
22an urteak. Urte askotarako!
Asko maite zaituen bat.



Amaia Mendibil
24an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean,
irailaren 29tik urriaren 5era
bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

jaiotakoak

BERGARA
Idoia Conde Sierra
Irailak 8

hildakoak

BERGARA
Eusebio Maestre Herrera
Irailak 6, 49 urte
Florencio Iturralde Galdos
Irailak 14, 95 urte
Maria Concepcion Alberdi Mendia
Irailak 14, 66 urte
Maria Luisa Barrutia Mardaraz
Irailak 15, 88 urte
Jose De la Fuente Gonzalez
Irailak 16, 50 urte
Castor Urisabel Grande
Irailak 18, 51 urte

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu
Domekak: 10:00.
Ubera
Domekak: 10:30.
San Juan
Domekak: 11:00.
Basalgo
Domekak: 13:00.
San Prudentzio
Domekak: 10:30.

Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00.
Eguakitza: 19:00.
Monja Zaharrak
Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
Mizpirualde
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domeka: 10:00.

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.
Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.
Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.
Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

MUSIKA

► **X-at, Zartateko eta Eraso** taldeak eta **Orlando** eta **Mikel** DJ-ak bihar, zapatua, 23:30ean Angiozarko Arbiaska pilotalekuan.

► **Udal Musika Banda** domekan, hilak 24, 12:00etan Angiozarko elizan.

ERAKUSKETAK

► **Eluska Zabaloren** margoak Nahikarin.

LEHIAKETAK

► **Soraluzeko bertso paper lehiaketa.** Bi maila bereiztuko dira: 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Lanak aurkezteko epea urriaren 20ra arte zabalik. 943 75 13 04.

► **Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bileran** parte hartu nahi duten zinegile edo bideo-sortzaileek lanak aurkezteko epea urriaren 15era arte zabalik izango dute. Pelikulak 8 edo Super 8 formatoan eginak izan beharko dira eta bideoak VHS formatoan aurkeztuko dira. Euskaraz egingako lanak bakarrik aurkeztu ahal izango dira. 94 684 12 21.

IKASTAROAK

► **Argazki ikastaroa,** Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta,

ERAKUSKETA

Kirol argazkiak

- Irailaren 22tik urriaren 1era
- Kultura Etxean

Gaur, eguakitza, Kirol Argazkien X. Lehiaketako erakusketa zabalduko da Kultura Etxean. Lehiaketaren 10. edizioan Euskal Herriko 20 argazkilarik hartu dute parte. Guztira, 68 argazki aurkeztu dira, 44 koloretan eta 24 zuribeltzean. Ohikoa den bezala, kalitate handiko lanak jaso dira eta epaimahaiak ez du lan erraza izan. Koloretan, Jose Juan Gurrutxagak lortu du lehen saria "Escuela de vela" izenburuko argazkiari esker, Mikel Zengotita azkoitiarra izan da bigarrena ("Apar artean") eta Benito Cantero bergararrak irabazi du hirugarren saria "Lasterketa" lanarekin. Herriko onenaren saria Jose Agustin Gurrutxagak eraman du ("Txamantxoya").

Bestalde, zuribeltzean, Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferreras izan da irabazlea "Janik" izenburuko lanarekin, Jose Juan Gurrutxaga donostiarra sailkatu da bigarren ("El rebote") eta Jose Agustin Gurrutxagak lortu du hirugarren postua. Benito Cantero izan da herriko onena, "Ezkarai" lanari esker. Begoña Payas Eskola Kiroleko koordinatzaileak, Fernando Aguriondo Arrasateko udal kirol teknikariak eta Gerardo Eskarza Oñatiko udal kirol

teknikariak osatu dute epaimahaia. Sari-banaketa ekitaldia datorren eguakitzean, hilak 29, arratsaldeko 8etan egingo da Kultura Etxean. Sarituek Tere Guenetxearen eskultura bana eta diru saria jasoko dute. Gaur arratsaldean irekiko den erakusketan lehiaketako lanik onenak ikusi ahal izango dira. Lehiaketaren 10. urteurrena ospatzeko, finalista suertatu diren argazkiekin osatutako katalogo bat kalera-tuko da, doan banatuko dena.



Argazkian, koloretako lehen saria lortu duen lana.

irailaren 25ean, 26an, 27an eta urriaren 2an, 3an, 4an, 9an eta 10ean, 19:15etik 21:00etara Zabalotegin. Izen-ematea (3.000 pezeta) Kultura Etxean.

► **Udaleko Gizarte Ongizate sailak** 12-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta-

ko masaje teknikak konbinatzen dituen masaje ikastaroa antolatu du, urriaren 2tik abenduaren 20ra arte. Izen-ematea irailaren 28ra arte zabalik. 943 77 91 25.

► **Margo ikastaroa** Beartek antolatuta, urtik aurrera

Boluko lokalean, martitzen arratsaldeetan. Argibide gehiago 656 72 44 49 telefono zenbakian.

► **Udaleko Gizarte Ongizate sailak** bi ikastaro martxan jarriko ditu: mekanika eta elektrizitatea batetik, eta

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

PANA DE ROKUA
TABERNA

*Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia*

SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73

URRATS
TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN**

Ibargarai 4
943 76 52 92

diseinu eta patroigintza beste-
tik. Argibideak: 943 76 91 24.

► **Yoga ikastaroa** Antzuolan.
Interesatuak Antzuolako liburu-
dendan eman dezakete izena.
943 76 60 62 (Mari Kontxi).

► **Kutxak** bere aulak plazara-
tzeko deialdia egin du. Bestek
beste, Windows eta Word,
Internet, sukaldaritza, jarduera
fisiko funtzionala eta yogaren
hasiera ikastaroak antolatu
ditu. 943 44 08 63.

DEIAK

► **Mendia Bizirik** taldeak
urria-azaro bitarteko asteburu
batzuetarako hegaztien mun-
dua ezagutu nahi dutenentzat
oinarrizko zenbait ekitaldi anto-
latu ditu. Asier Sarasua ornito-
logo eibartarra izango da jar-
dunaldien arduraduna. Izen-
ematea (800 pezeta) eta
argibideak Pol-Poleko bulegoan:
943 76 48 51. Plaza mugatuak.

► **Txapa Irratiko** programa-
zioan parte hartu nahi dutenei
bihar, zapatua, 12:00etan
Zabalotegiko Botako lokalean
egingo den bileran parte
hartzeko dei egiten zaie.

► **Mendi irteera** domekan,
hilak 24, 9:30ean Frontoitik.
Ibilbidea: Ageda-Murumendi-
Itsasondo. Txartelak Pol-Pol
tabernan.

► **AEK Akulu** euskaltegian
matrikula epea zabalik irailaren
29ra arte. 943 75 05 18.

► **Azoka ekologikoa**
Aretxabaletan hilaren 30ean,
Biolurrek eta Kontsumitzaileen
udal bulegoak antolatuta.

JAIAK

► **Angiozarko San Migel**
jaiak. Bihar, zapatua, plater
tiraketa txapelketa 15:30ean,
18:30ean mus txapelketa
Pagomendi elkartearen eta
22:30ean erromeria. Domekan,
10:30ean Meza Nagusia,
ondoren artisautza azoka eta
17:00etan poniak eta zezenak
plazan. Datorren eguakitzean,
San Migel egunean, 11:00etan
Meza Nagusia, 16:30ean ume-
entzako jolasak, ondoren txo-
kolatada eta 19:00etan briska
txapelketa Pagomendin eta
22:00etan sardina eta saiheski
afaria plazan. Ondoren San
Migelen zeruratzeta eta Musu-
truk taldearekin dantzaldia.

► **Euskararen eguna** bihar,
zapatua, Olatin, EHEK antolatu-
ta. 11:00etan bizikleta-martxa
poteoa, 14:00etan herri bazka-
ria eta 19:00etan Morauren
emanaldia San Anton plazan.

KINTADAK

► **1948an** jaiotakoen afaria
Txuringon irailaren 30ean,
21:30ean. Izen-ematea
Euskadiko Kutxan.

► **1961an** jaiotakoen afaria
urriaren 7an. Izen-ematea
(2.000 pezetako depositoa)
Nahikarin edo Dixulan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

La tormenta perfecta
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen
eguna: 19:30.

Desayuno de campeones

Eguena, zine-kluba: 20:00.
ARRASATE. Alai zinema
El hombre sin sombra
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen

eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Evasion en la granja
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Reglas de compromiso
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Las confesiones del

Doctor Sachs

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Esta abuela es un peligro

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

AZKOITIA. Baztartxo

Tango para tres

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

El patriota

Domeka: 16:30, 19:30, 22:15.
Astelehena: 20:00.

LA TORMENTA PERFECTA

Zuzendaria: Wolfgang Petersen.
Aktoreak: George Clooney, Mark
Wahlberg, Diane Lane.

▲ 13 URTE

Filme honek izugarriko ikus-
mina piztu zuen estreinuaren
aurretik, efektu berezien ikus-
garritasuna azpimarratzen ze-
larik. Benetako gertakarietan
oinarrituta, arrantzan ari den
itsasontzi bateko mariñelek
inoiz izan den ekaitzik han-
dienari aurre egin beharko
diote, euren ingurukoak be-
raien berri jasotzeko zain
dauden bitartean...



DESAYUNO DE CAMPEONES

Zuzendaria: Alan Rudolph.

Aktoreak: Bruce Willis, Nick
Nolte, Barbara Hershey.

▲ 18 URTE

Zine-klubeko denboraldi be-
rriari hasiera ematen dion fil-
me hau iazko Berlingo Zine
Jaialdian aurkeztu zen. Kurt
Vonnegut idazlearen nobelan
oinarrituta dago eta hainbat
istorioren artean, *Dwayne*
Hoover (Bruce Willis) gizon
arrakastasuaren gorabeherak
kontakten dira, umorea filme-
ko ardatza delarik.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 🔧 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Aurten ere kataluniarrak Bergara ezagutzera etorri diren turista gehienak

Turismoak behera egin du aurten, Euskal Herri osoan bezala

Ekainaren 17tik irailaren 17ra irekita egon da Turismo bulegoa. Bertan jasotako kontsulten arabera, behera egin du turistek kopuruak. Bestalde, perfila ez da asko aldatu; kataluniarrak dira oraindik ere gehien etortzen direnak.

Guztira 1.887 kontsulta jaso dira aurtengo udan Turismo bulegoan. Bergarakoak 302 izan dira eta 1.585 kanpotik etorritakoak, iaz baino 385 gutxiago. Hori-etatik 558 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira eta 787 Estatuko gainontzeko herrialdeetatik etorri direnak.

Estatuari dagokionez, Kataluniatik eta Madriletik etorri da, ohi bezala, Bergarara jende gehien; kataluniarrak batez ere. Dena den, beherakada nabaritu da turista hauen artean ere. Kataluniarrak iaz 441 etorri ziren eta aurten 305; madrildarrak 302 iaz eta 161 aurten.

Europako herrialdeetatik etorritakoen 178 kontsulta jaso dira, herritar frantsesenak gehien bat. Ipar Ameriketatik etorritako turiste-



449 pertsonak ezagutu dute Bergara bisita gidatuak direla medio.

nak 62 eta Argentinatik etorritakoenak 31.

TURISTA GUTXIAGO

Arestian aipatu bezala, iazko datuekin alderatuz, turis-

ta gutxiago ibili da herrian. Hala ere, iazko datuak oso altuak izan ziren eta Xabier Aranburu Udal Museologoaren arabera, zaila izango da berriz horrelako emai-

tzak lortzea; iazkoa ezohikoa izan zen. Hori dela eta, orain bi urtekoekin erkatuz, aurtengo datuak altuagoak dira, orain bi urte 1.308 kontsulta jaso baitziren orotara, aurten baino 579 gutxiago.

ARRAZOIA ATENTATUAK

Beherakadari dagokionez, Euskal Herria osoan izan omen da, ez da soilik Bergaran gertatu. Horrez gain, gehiago nabaritu da barrualdeko herrietan kostaldean baino. Jaitsieraren arrazoiei dagokionez, Udal Museologoak bi aipatu ditu: uztailen eta abuztuan izandako atentatuak eta eguraldia. Museologoaren esanetan, "uda honetako atentatu kopuruak jende gutxiago etortzea eragin du. Hoteletan ere anulazioak egon dira". Bestalde, iaz turismoak gora egitearen arrazoietakoa bat ere "tregua garaia izatea" izan zela gaineratu du.

Bisita gidatuen kasuan, 104 egin dira eta guztira 459 pertsonak hartu dute parte. Otorduak egiteko tokiari buruz 47 kontsulta jaso dira 137 pertsonaren izenean eta ostatu hartzeko 47, 146 lagun izenean.

KONTSULTAK TURISMO BULEGOAN

	1996	1997	1998	1999	2000
Begararrak	283	531	263	340	302
Euskal Herrikoak	244	302	300	444	558
Katalanak	272	300	196	441	305
Madrildarrak	112	86	92	302	161
Estatua, gainerakoa	241	150	232	403	321
Europa eta mundutik	81	152	200	380	271
Sailkatu gabeak	22	42	25	-	-
Kanpotik, guztira	972	1.032	1.045	1.970	1.585
GUZTIRA	1.255	1.563	1.308	2.310	1.887

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean

BERGARA
943 76 28 92



Irala 3
Telefona:
943 76 48 26




IRRINTZI
k a f e t e g i a

Zerrajerako zentral hidroelektrikoan Gureak tailerra kokatuko da


Bergarako Zerrajera elektrizitatez hornitzeko erabiltzen ziren turbina eta generadorea erosi ditu Kataluniako Wildcat Electric enpresak. Zerrajerak elektrizitatea sortzeko zentral hidroelektrikoa zeukan 1996. urtera arte. Zentral honek, milioitik gora kilowatt sortzen zituen urtero Zerrajera hornitzeko.

Elektrizitatea sortzeko ura, Deba ibaian hartzen zuen Zerrajerak. Ubidea eraiki eta bi kilometroko tuberia jarri zen ura bertaraino eramateko. Segunduko 4.000 litro sartzen ziren hoditik zentralera. Ura eramateko hodiak orain bi aste kendu zituzten.

Zerrajera Bergarako mende hasierako enpresa bada ere, kataluniarrek erosi dituzten piezak ez dira horren zaharrak. 1991 urtekoak dira, eta oraindik ere oso egoera onean daude. Gainera, 1996 urtetik ez dira erabili. Piezen neurri eta



Zentral hidroelektrikoa berriztu, eta bertan Gureak kokatuko da.



Turbinak eta jeneradoreak 1996. urtean laga zioten lan egiteari.

ezaugarriak ere bereziak dira, ezin dira edozein zentral hidroelektrikotan erabili. Horregatik, Bergarako Udalak iaz egindako beste saiakera batean ez zuen inork erosterik lortu.

Wildcat Electric enpresako ordezkariak joan zen eguakitzean etorri ziren Bergarara erosketa paperak sinatzera. Turbina eta generadorearengatik 14 milioi eta erdi ordaindu ditu. Astebeteko epean desmontatu eta zentral hidroelektrikotik atera beharko ditu.

GUREAK TAILER BERRIA

Behin zentrala hustuta, eraikina berrizteko lanak hasiko dira. Berriztu eta gero, Gureak erakundeko eguneko zentrua eta bulegoak kokatuko dira bertan. Tailer berria ere eraikiko da zentralari erantsita eta Gureak-eko ehun lagunek egingo dute lan. Eraikina 2001. urteko irailean inauguratzea espero dute.

Mujika
geologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

**1918an zabaldutako
denda, orain berriztuta,
zuen zerbitzura**

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

EUDIMAn sartzeko erabakia berreste bidean

Bihar, zapatua, ezohiko plenoa izango da Udalean. Bertan, Bergarako Euskal Herritarrok eta Eusko Alkartasuna Udal taldeek mozio bat aurkeztuko dute. Izan ere, EAeko Justizia Auzitegiak, Bergarako Udalak Udal Intsumisoen Mankomunitatean (EUDIMA) sartzeko hartu zuen erabakia baliogabetu egin du. Hori dela eta, EH eta EAko zinegotziek bihar plenora eramango duten mozioan Udalak 1997an hartu zuen erabakia berrestea nahi dute honako hau adieraziz: bate-tik, herritarren ordezkari bezala, euren eginbeharra herriaren interesak defendatzea dela eta Euskal Herriaren etorkizuna libreki erabakitzeke euskal gizarteak duen eskubidearekin bat



1997an erabaki zuen Udalak EUDIMAn sartzea.

ARTXIBOA

egiten dutela. Bestetik, Euskal Herria desmilitarizatzeko bidea jarraituz, Udalak EUDIMako estatutuak berriro ere onartzen dituela. Hirugarren, Udalak espainiar eta frantziar ejerzitoarekin ez kolaboratzeko konpromisoari eutsiko diola.

Mozioa onartu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundira eta Udalbiltzara kopia bana bidaliko dira.

Plenoaren ostean "Errespetatu herriaren hitza. Ejerzitoak kanpora" lelopean kontzentrazioa egingo da San Martin plazan.

Autobide berriko Gallastegiko lehen tunela egin da

Gallastegiko lehenengo tuneleko zulatze lanak amaitu ziren joan zen asteko martitzenean. Tunela, Eibar-Gasteiz autobideko eskuineko galtzadari dagokio. Bergarako Iparraldean Amillagan, hasi eta Eibar arteko autobide zatiari dagozkio lan hauek. Zati horretan, autobideak, 4,8 kilometrotan, lau tunel izango ditu.

Gripearean aurkako kanpaina

Urriaren 31ra arte iraungo du. Hiru tokitan jarriko dira txertoak: Anbulatorioan, astelehene-tik eguakitzera, ordua hartuta (txanda hartzeko 14:00etatik 17:00etara); Labegarrietako kiroldegian (irailaren 26an 9:45etik 10:15era) eta Osintxun (irailaren 28an 11:30etik 13:30era).

Pertsona hauei gomendatzen zaie txertoa hartzea: 65 urtetik gorakoei eta patologia hauek dituztenei: bronkitis kronikoa, kardiopatia, diabeto gozoa, giltzurruneko edo gibekeko gutxie-gitasuna eta inmunodepresioa.

Udalaren kalitatea aztergai

Gipuzkoako Foru Aldundiak kalitatea hobetzeko plan piloto bat jarri du martxan Bergarako Udalean. Beste lau udaletan ere jarriko da martxan plan pilotoa, Errenteria, Tolosa, Ordizia eta Zarautzen.

Proiektuaren asmoa hiru ataletan dago banatuta: helburu eta adierazleen sistema zehaztea udaletako eta Diputazioko oinarrizko zerbitzuetarako; helburu eta adierazleen sistemaren ezarpena sustatzea eta laguntzea; eta az-

kenik, sistema sendotzea eta gainerako udal-tara zabaltzea. Horretarako, LKS enpresaren zerbitzuak kontratatatu ditu Diputazioak.

Aste honetan bertan jarri da plana martxan Bergarako Udalean proiektuaren lehenengo atala, kalitatea neurtzeko helburu eta adierazle egokien sistema zehaztea, hain zuzen ere. Helburu eta adierazleak zehaztu ondoren, aplikagarri izango dira edozein udaletan, eta bigarren faseari emango zaio hasiera.

Arantza Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86

Ganbara
TABERNA

**Heure erara
ibiltzeko!**

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

A zelako giroa!

Joan dira San Martinak. Egitarauan ohikoak diren hainbat ekitaldi izan ditugu, baina, baita berriak ere. Eguakitzean, Moises Azpiazuoren oroimenez egiten den 15 urtetik gorakoendako Dantza Askatuko XVI. lehia-keta jokatu zen. Irabazleak Azkoitiako Jon Ander eta Edurne Azpitarte anai-arre-

bak izan ziren. Bigarren saria Bergarako Asier Ena eta Maite Lazkanok jaso zuten, eta hirugarrena, Errenteriko Eneko Gil eta Nerea Vesgak.

Nagusien danborrada ere, eguakitz gauean egin zen. Aurten, abanderada gutxik hartu dute parte. Hori dela eta, elkarte guztiek ezin izan zuten beraien ban-

dera erakutsi. Bestalde, Juan Migel Usabiaga zenari omenaldia egin zitzaion.

Zapatuan, San Martin Agirre eguna, ekitaldiek aurrera egin zuten. Musika, sokamuturra, antzerkia, suzko erroberak eta batez ere kirola izan ziren nagusi.

Domekan, egunari bizitasa eman ziona Erreile-

no eta tostoien Kofradiaren I. Batzar Nagusia izan zen. Bergarakoarekin batera Estatuko hamazortzi kofradia izan ziren gure artean lehenengo topaketa honetan. Ekitaldian, herriko lau gozogile ohorezko kofrade izendatu zituzten: Larraña-ga, Mujika, Raizabal eta Al-zelai.



Maite Lazkano eta Asier Ena bigarren Moises Azpiazu txapelketan.



San Martinen martirioa.



Aspaldiko lagunak.



Trapu Zaharra fitxaketa berriak egiten San Martin plazan.



Gaztetxoek nagusien pare jo zuten euren danborradan.

DV



Gozogileak erreileno eta tostoien ohorezko kofrade.

DV



Juan Migel Usabiaga zenaren alabek danborradako makila jaso zuten.

Berrigara

422 zenbakia.
2000ko irailaren 22a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.

Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77

Posta elektronikoa:

berrigara@topagunea.com

Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.

Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak: Iban Arantzabal.

Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.

Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.

Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Josu Okina,
Juan Martin Elexpuru.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
irritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

IBARGARAIKO ERROTONDA

Joan zen asteko BERRIGARAN harriduraz irakurri nuen Ibargarai kalean egin berri duten errotonda zabaltzeko lanak hasiko direla laster. Errotonda diseinatu zuten teknikoek zer nolako erantzukizuna daukate horrelakoetan? BERRIGARAN irakurri nuenez, Udalak, errotonda txikia zenez, Gabonak aldeira zabaltzeko lanak egiteko asmoa zeukan jadanik. Nola onartu daiteke hori? Proba modura egin da errotonda, ala? Ulertezina benetan.

Agerian geratu da errotonda txapuza bat izan dela. Orain herritarrok sufritu beharko ditugu trafiko aldaketak eta bestelako eragozpenak lanek irauten duten bitartean. Zorionez, nik dakidala behintzat, ez da istripu larririk gertatu, baina ireki zenetik nire inguruko arteen errotondaren kontrako iritziak bakarrik entzun ditut. Ez dakit errotonda baten beharra zegoen, baina aurrerantzean horrelako erabakiak hartzen dituztenei ganora handiagoz jokatzea exijitu behar zaie, honen moduko lanak egitea ez baita txantxetako gauza. Lojikoak iruditzen zait errotonda egin zenetik herritarren aldetik Udaletxean kezak jaso izana; autoan (autobusean zer esanik ez) bertatik pasatzea nahikoa zen gaizki eginda zegoela konturatzeko.

Dagokionak azter ditazala behar den moduan alde onak eta txarrak, trafikoan hainbesteko eragina duen obra bati ekin aurretik.

Jose Fernandez

Goitb
Goiena Telebista

GOITB berriz ere airean

Udako etenaren ostean, berriz ere ikusten hasi da GOITB Bergarako hainbat etxetan. Lehen bezala, oraingoan ere ez da etxe guztietan ikusiko, baina bada zeozer. Jardunen eta Zaiazko elektronikaren ahaleginari esker, behin behineko irtenbidea topatu zaio arazoari. Espero dezagun, behin behinekotasun hori ahalik eta laburrena izatea eta lehenbailehen Goiena egitasmoa geure herrian ere garatzea. Udalarekin dauzkagun hartu emanek berandu baino lehen behin betiko soluziora eramango gaituela da gure esperantza, eta GOITB Bergarako etxe den-denetan ondo ikustea gure asmoa.

Jardun Elkartea

tira biraka unai azkarate



atrebentzia ezpada

Oraindik ere badago jendia basuria errekarra botatzen dabena. Neurrixak hartu biharko lirakez? Ze neurri?**Fran Alcaraz**

Bai; nik uste dot neurrixak hartu bihar direla. Esaterako, horma bat edo berja bat jarri, eta baita isunak be.

**Luzia Peña**


Bai, noski; ez dago eta errekarra bota biharrik; egu-nero pasatzen dira basuria jasotzera. Ze neurri hartu biharko lirazken ez dakit.

**Ikerne Iturbe**

Ez jat gaizki pentsatzen neurrixak hartzia, baiña nik uste dot alperra izango litzakela, horrek norbera-rengandik irten bihar dau.

**Tere Garcia**

Ni Arrasatekua naiz, eta han be berdiña pasatzen da. Nik uste dot bijilantzia jarri eta neurri gogorak hartu biharko lirakela.

**Manuel Cabrera**

Lotsagarrixa pentsatzen jat; basuria dagokixon tokira bota bihar da. Ez dakit ze neurri, baiña hartu biharko lirake.

**Jabier Arteaga**

Hori ebitatu egin bihar da, basuria ezin da errekarra bota. Ze neurri? Horixe ez dakit.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

KANPOKO IGERILEKUEN ITXIERAREN INGURUAN

Iñaki Larrañagaren deia jaso dugu aste honetan. Iñakik protesta egin nahi du, suzko erroberengatik, kanpoko igerilekuak zapatuan, 14:00etan, itxi egin behar izan zirelako. Larrañagari ez zaio logikoa iruditzen Udalak suzko erroberak jaurtitzeko beste toki aproposago bat topatu ez izana eta, ondorioz, zapatu arratsaldean eta domekan kanpoko igerilekuak itxita egotea. Kirol Zerbitzukoak kanpoko igerilekuak ixteko orduan flexibleagoak izan beharko lirakeela dio, beste urte batzuetan gertatu izan delako piszinak itxi eta hurrengo egunetan egun eguzkitsuak izatea. Bere iritziz, barruko zein kanpoko igerilekuak aldi berean zabalik eduki ahal izateko arazoa konpondu behar da.

Eskulan ikastaroa**Noiz:**

urriaren 16tik maiatzera arte

Non:

Kartzela Zaharrean

Ordutegia:

15:30etik 17:00etara

Prezioa urte guztirako

5.000 PTA Jarduneko

bazkideek;

6.000 gainontzekoek

Matrikula epea:

urriaren 11.

Informazioa:

Jardun elkartearen (Kartzela zaharra)

943 76 08 19 / 943 76 36 61



*Erreformak
egin ondoren
udazken neguko
moda berria
aurkezten dizugu*

*Gaur eguneko
emakumeok
gazte
senti gaitzen*



MARGA
jantxidenda

San Pedro 20. Bergara. Tf. 943 76 05 37

Etxebizitzen alokairuak

Europako beste herrialde batzuekin konparatuz, Estatu espainiarrean alokairuko etxeen kopurua oso baxua da. Izan ere, botere publikoek ez dituzte alokairuko etxebizitzak behar beste promozionatu. Alokairuko etxebizitzak ari garenean, beti ere etxebizitza iraunkorraz ari gara, ez oporraldietarako edo lan kontuengatik egiten diren alokairuez, esaterako. 1995eko urtarrilaren 1etik alokairuko etxebizitzen gaineko legedi berria indarrean dago, aurretik zegoena jabeentzat nabarmen kaltegarria baitzen. Hor dago errentamendu-kontratu zaharren kasua. 1985ko "Boyer dekretua", errentariaren kalterako zen eta erdibideko soluzio bat topatu nahi izan zen.

Legedi berriaren arabera, errentariak, gutxienez, 5 urteko alokairu epea eskatu diezaiotke jabeari, baina errentaria ez dago behartuta epe hori betetzera. Legedia errentariaren eskubide oinarrikoen babesle da. Bost urte igaro ondoren, jabeak kontratua eteteko eskubidea izango du. Kontratuak irauten



BERNARDINO MAIZTEGI

Abokatu

"1995eko urtarrilaren 1etik alokairuen etxebizitzen gaineko legedi berria indarrean dago, aurretik zegoena jabeentzat nabarmen kaltegarria baitzen"

duen bitartean, errentariak etxebizitza erabilitzeko eskubidea izango du eta, era berean, jabeari beharrezkoak diren konponketak egiteko eskatu ahal izango dio, etxebizitzak gutxieneko bizigarrtasun baldintzak bete ditzan. Bestalde, hobekuntza obrak errentariaren kontura izango dira, beti ere jabearen baimenarekin. Errentari dagokionez, urtetik urtera IPCaren igoera aplikatuko zaio.

1985. urteko maiatza baino lehenago eginitako errentamendu kontratu-zaharren kasuan, etengabeko iraupena zuten. Praktikan hil arte alokairuko etxean bizitzeko aukera du jendeak. Orain, berriaz, errenta eguneratzeko aukera jasozten da eta errekurso ekonomikorik ez dutenei IPCa igotzen zaie. Era berean, etxebizitza berreskuratzeko eskubidea dute jabeek hainbat kasutan. Dena den, jabeen eskubideak defenditzeko Jabego Kamara dago eta errentariak kontsumitzaileen bulegoetan jaso ditzakete argibideak etxebizitza bat alokatzeko orduan.



Europako beste herrialde batzuekin konparatuz, Estatuan alokairuko etxeen kopurua oso baxua da.

BOLUBARRI (I)

Elgoibarko artxibo munizipalean aurkitutako dokumentuetan, non Bergara, Soraluze, Eibar eta Elgoibarko bideez hitz egiten den, Bolu-Barriren berri dago, Bolubarritik San Lorentzoko ermitara bitarteko bidea aipatuz.

1892ko GBO:

"Juan Bengoa bergararrak, jausitako BOLUBARRI errotaren jabe Emilia Berrola anderearen izenean, presa berriz jasotzeko baimena eskatzen du. Errota hau Bergarako lurretan dago, errekararen eskubialdera. Berau erabiltzeko baimenak iraungitze data pasata duenez, eskubideak berriz hartzea eskatzen da Uren Legeko 148. artikulua arabe-ra.

Presara erakita Deba errekararen urak erabiltzea abalbidetu nahi da. Erabiliko litzatekeen uneko ur emaria 700 litro segundu ingurukoa dela pentsatzen da eta ateratako indarra irin fabrika erabiliko litzateke. Irin fabrika hau lehen dagoen lekuan kokatuko litzateke. Presaren altuera aurrekoak zuen berbera izango da eta berau behar den bezala markatua egoz da..."

Hurrengo urteko Gipuzkoako buletinean horrela agertzen da:

"... jausita dagoen BOLUBARRI errotako jabe den Emilia Berroeta andereak ... presa eraikitzeko... eta irin fabrikako indar eragile izan dena indarra ateratzeko baimena ematea eskatzen da, sortutako elektrizitatea "Echaide y Cía" tela eta estanpatu elkarteari igorri abal izateko. Horrela lantegi honetako tresnek argi-indar hori erabiliko lukete..."

Antxon Agirre Sorondo

FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2000-2001 ikasturtea

FRANTSESA - FRANTSES KOMERTZIALA
AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
UMEENDAKO FRANTSESA

Ikastaroaren hasiera:

urriaren 2a

Izena ematea: irailaren 29ra arte

Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 17:00-19:00

943.76.30.55



Ikastaroak

Zeramika

Enkuadernazioa

Eskulanak

Irakaslea: Ana Orgaz

Martitzen eta
eguztzenetan

18:00-20:00

Izena ematea: Areatza.



Tailaketa

Irakaslea: Eusebio Esnaola

Martitzen eta eguztzenetan 18:00-20:00

Izena ematea: Areatza.

Gantxilloa

Bainikak

Kurutze puntua

Irakaslea: Marijose Imaz

Eguztzenetan

15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izena ematea: Igarza.




Bolilloa eta bainikak

Irakaslea: Idoia Ibañez

Eguztzenetan 15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izena ematea: Igarza.



*Ikastaro guztiak
Koldo Eleizalde
2-an emango
dira eta urrian
hasiko dira*

Informazioa:

943 76 35 99

(eguztzenetan

10:00-13:00 eta

16:00-20:00)

Ardo dastatzen

Martitzenean, Kartzelan, hasiera eman zitzaion Jardun elkarteak antolatutako ardo dastaketa ikastaroari. **Mikel Garaizabal** enologoa eta sumillerrak emandako ikastaroan 20 bat lagun ari dira, joan zen urtean eta uda aurretik egin ziren ikastaroetan emandako gaiak sakontzeko asmoz. Ikastaroa **12 ordukoa** da eta datorren eguenean bukatuko da. Besteak beste, Jerezko ardoak, munduko ardoak edota maridajea (janari ezberdinei ondoen egokitzen zaizkien ardoak) landuko dituzte ikasleek. Hauen lagunek badakite nora jo gomendio eske...




Urrezko eta zilarrezko ezteiak

Jesusa Askasibar eta Felix Gorosabel senar-emazteek beren ezkontzaren urrezko ezteiak ospatu dituzte. Felix eta Jesusa **1950eko abuztuaren 31n** ezkondu ziren Angiozarreko elizan eta **Jesus Mari Gorosabel** euren seme nagusia **handik 25 urtera**, fetxa berean, **Mari Jose Beitiarekin**, Untzilan. Senitar-tekoekin batera, ospakizuna batera egin zuten joan zen irailaren 3an. Untzilan meza entzun eta beste hainbeste urtetarako elkarri baietza eman ondoren, bertako soziedadean bazkari ederra izan zuten. Zorionak!!

Udazkenaren atarian

Egun hauetan udal langileak **Ibargarai hiribidean, Toki-Ederren, Bolun eta Mizpibalde egoitzan** diren aligustreak (ar-bustu japoniarrak) mozten izan dira. Zuhaitz hauek hosto iraunkorrekoak dira eta urtean behin edo bitan inaustea ona da adituen arabera. Argazkian, udal langile talde bat Seminario ondoko zuhaitzetan inausketa lanak egiten. Hemendik egun batzuetara lan hauekin amaitzea espero du Udalak.



iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikaren
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetariak: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 64. zenbakia. 2000 ko irailaren 22a.

Ika-mikarako kartelak jarri dira

“Euskadi-Pais Vasco” esaldia estali egin dute Antzuolako karteletan


Hiru urteren bueltan azkenean jarri dituzte Debagoieneko herri guztietan herria identifikatzeko kartelak. Guztietan herriaren izenarekin eta bertako ezaguri batekin batera “Euskadi- Pais Vasco” ere ipini du Gipuzkoako Aldundiak.

Ma hilabete bada Antzuolako bi sarreretan kartel berriak jarri dituela Gipuzkoako Aldundiak. Aspaldiko kontua da kartelena. Mireia Unamuno alkateak azaldu digunez “gutxienez hiru urte badira kartel horiek ipini nahi zirela”. Baina kartelok Debagoieneko Mankomunitatean ika-mikarik ere sortu du. Izan ere, herriaren izenarekin batera “Euskadi- Pais Vasco” ere jartzen du. Hori dela eta, Debagoieneko udal ordezkariak, Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez, “Euskadi-Pais Vasco” esaldiak zentzurik ez zuela eta kentzeko eskaera egin zuten. Herri guztietako udal ordezkariak, “Euskadi-Pais Vasco” horren ordez, besterik ez balitz “Euskal Herria” jarri beharko lukeela ere adierazi zieten Aldundiko ordezkariak.

DIPUTAZIOAREN EZETZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, kartel horietarako dirulaguntza aspaldi eskatu zela eta kartelok eginak zeudela eta, ez zuela atzera egingo erabaki zuen. Gauzak horrela, bailarako zortzi herrietan jarri dira kartelok eta guztietan, herriaren izena eta bertako ezaugarriarekin batera “Euskadi-Pais Vasco” jartzen du.

Kontuak kontu, Antzuolako karteletan estali egin da “Euskadi-Pais Vasco” jartzen duen kartelaren zatia. ■



Horrela ikusi daitezke Antzuolako bi sarreretan jarritako kartelak.

Ainhoa Ugarteburu kazetari berria

Haxe duzue Kontuolan maiatzetik lanean ari den kazetari berria. Ainhoa Ugarteburuk hogeita bost urte ditu eta Soziologia ikasi du Euskal Herriko Unibertsitatean.

Joan den maiatzetik ari da herriko hamabostekarian kazetari lanak egiten Marijo Deograciasekin batera. Beraz, badakizue, ezer izanez gero, berarengana ere jo dezakezue, 943 76 65 08an.



Joxe Mujika (Eperra elkarteko bazkidea)

“Ehiztarixak geroz eta gutxiago die”

Joan den domekan Eperra ehiza elkar-teak hogeita bosgarren urteurrena ospatu zuen. 48 bat lagun elkartu ziren bazkaltzera, denak gizonak, baina Joxe Mujikak esan digunez “lekuik ez geunkan, bestela neuri emakumiak gehixago gustatzen jat albuak eukitzia gizonak baiño; eztauku lekuik danendako”.

Noiz eta nola sortu zen elkartea?

Gu ehizan ibiltzen giñan kuadrilla bat eta ez geunkun nun elkartu eta pentsatu giñuan soziedade bat egittia. Ehizatik sortutako soziedade bat da.

Beti elkartu zarete egoitza honetan?

Hau egin aurretik juntak eta basarritarren sozidarian ibilli giñan urte pare baten, baiña orain dala 25 urtetikan betik hemen.

Bazkide denak ehiztariak zarete?

Ez, ehiztarixak gero eta gutxiago die; gu zaharrok aurrera goiatz eta gaztiak gero eta gutxiago datoz.

Zeintzuk izan zineten sortzaileak?

Mordoskia giñan, asko izan giñan: Joxe Torre, Eliseo, Francisco Garitano, neure partian, Santi Zabaleta, Pedro Etxaniz difuntua, Roke Iñarra... Asko izan giñan. Pena haundi bat izan zan Pedro, inaugurau baiño hamabost egun lehenago edo, atake bat emon eta hil zala.

25 urte hauetan egon da aldaketarik elkartean?

Berdin jarraitzen dau; alkartzeko, afari batzuk egitteko, ehizako junta batzuk...

Zenbat bazkide zarete?

Hirurogei sozio gara; batzuk dare jubilatuta, honezkerok hamar bat edo izango die, baiña hirurogeik kuota pagatzen dogu. Topia hirurogei ipiñi giñuan, lokal txikixa dalako; ondo lograuta dago,



Joan den domekan ospatu zuten Eperra elkartearen 25. urteurrena.

baiña 50 metro koadro dauzka planta bakoitzeko eta anpliatzeko lekuik eztauku.

Zein da bazkide zaharrena eta zein gazteena?

Bazkide gaztiena Beñat Etxebarria izango da eta bazkide zaharrena, Joxe Mari Olamendi izango da eta Jai-ki, Daniel, be edade berekua izango da.

ARGAZKI LEHIAKETA

Aurten ere Antzuolako Udalak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia libre izango da eta hiru mailatan banatuko da, 14 urtera arte, 15-25 urte artean eta 26tik gora. Partehartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, ezinbestez, 30 x 40 zentimetroko euskarri batean; argazkia, berriz, nahi den tamainakoa izango da.

Lanak aurkezteko epea urriaren 11n amaituko da eta argazkiok udal-terera eraman beharko dira, egilearen

datu guztiekin kartazal itxi batean. Sariak ere mailaka banatuko dira eta 25.000 eta 15.000 pezetako sariak izango dira.

Lan guztiak lehiaketaren ondoren erakutsi egingo dira udaletxeko areto nagusian; hala ere, sari-banaketaren egunak eta erakustaldiaren datuak epimahiak erabakia eman ondoren jakinaraziko dira. Erakusketaren ondoren, egile bakoitzak bere argazkia jasotzeko aukera izango du. Argibide gehiago: udaletxean.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



MUEBLES
IGEA

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak



60 lagunetik gora ari da gimnasia eta aerobikean.

Mantenimendu gimnasia eta aerobic saioak

Aurtengo aerobic eta mantenimendu gimnasiaren deialdiak arrakasta handia izan du. Jende ugari apuntatu da, baina batez ere aerobika aukeratu du jendeak.

Azken urte hauetako moduan, Antzuolako udalak antolatuta aurten ere mantenimenduko gimnasia eta aerobik saioak hasi ziren joan zen irailaren 13an. Denera adin talde guztietako 64 emakume apuntatu dira. Entrenatzaileak Edu eta Maier dira, Edu mantenimendu gimnasia eta Maier aerobiken. Saioak herriko eskoletan zein maristetan ematen dira.

ORDUTEGIA AUKERAN

Mantenimenduko gimnasia talde bakarra sortu da, 12 pertsonaz osatua. Talde hau arratsaldeko 19:00etan hasten da astelehen, eguazten eta eguenetan. Eduren hitzetan "batez ere 45-50 urte inguruko emakumeak etortzen dira gim-

nasiara, taldea nahiko homogeneoa da. Mantenimenduko gimnasia helburu nagusia giltzaduretan mugikortasuna lantzea eta forma mantentzea da, tonifikaziorako egokia da". Talde hau lehenagotik dabilzanak eta hasiberrien artean osatua dago.

JENDE GEHIAGO

Aerobiken hiru talde osatu dira, goizez 9:15etik 10:15era astelehen, eguazten eta eguakitzetan, eta astelehen eguazten eta eguenetan bi ordutegitan, 19:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 21:00etara. Hemen pertsona gehiago apuntatu da eta taldeak 20 lagun ingurukoak dira. Maierren esanetan "nahiko talde handiak dira, eta ez dago pertsona gehiago talde hauetan sartzeko modurik".

Talde hauetan pertsonen adin tartea zabalagoa da, 18 urte ingurutik 45-50 urte inguruko jendea ari da kirol hau egiten hiru talde horietan.

ALFABETATZE IKASTAROA

Antzuolan, helduendako hezkuntzaren barruan, alfabetatze ikastaroak emango dira. Bergarako HHIIn (Helduen Heziketa Iraunkorra) alfabetatze ikasketez gain, irakur-idazketan trebatu daiteke, eta bigarren hezkuntzako ziurtagiria ateratzeko aukera ere badago. Antzuolan alfabetatze ikasketetan izena emateko gizarte zerbitzuëtara jo behar da edo, bertara deitu. Beste ikasketetan interesaturik egonez gero ere, deitzeko diote, eta taldea sortzeko adina jende egonez gero, herrian bertan emateko aukera egongo litzateke.

Horrez gain, Bergaran HHIIn ekintzak ere antolatu dira, hala nola, informatika, eskulanak eta baita bisita gidatuak ere. HHI goizez eta arratsalde egongo da irekita. Helbidea Barrenkale kalea 33-2, eta telefono zenbakia 943-764452.

EGA IKASTAROA

AEKk antolatuta EGA ikastaroa emango da aurten Antzuolan. Astean 2 egunean, eguneko bi ordu eta larunbat goizetan 4 ordukoa izango da. Informazio gehiago nahi baduzue, Akulu AEK euskaltegira joan (Masterreka 13, behe, Bergara), edo bestela deitu 943-760518 telefonora.

UMEENTZAKO JOLASAK

Zapatuan, hilaren 23an, umeentzako herri kirolak eta jolasak antolatu dituzte. Kulki parkearen eskutik izango dute herriko neska-mutikoen ondo pasatzeko aukera. Gainera ezagutu ere ezagutzen dute Kulki parkearen eskaintza; izan ere, Antzuolako jaietan pilotalekuan aritu zirenak dira eta Kulkikoak. Zapatuan Zurrategin antolatuko dute parkea, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Deskuidoan eguraldiak lagunduko ez balu, herri kirolak eta jolasak pilotalekuan egingo lirateke.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA BERGARA
609 157 131 609 150 164

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Lurdes Alberdi (Liburutegiko arduraduna)

“Katalogazio lana falta denez, oso zaila da liburuak aurkitzea”

Lurdes Alberdi zumarragarrik Antzuola-ko Liburutegian dihardu lanean liburu, aldizkari eta bideoen katalogazioa egiten. Artearen Historian lizentziatua, hainbat ikastaro egina, ez da lehen aldiz liburutegi batean lanean aritzen dena. Urtarrilera arte arituko da lanean.

Zein da zure lana?


Jendeari aholkuak eman eta liburuak hartzerakoan laguntzeko nago. Liburutegia informazio gune bat da, eta esan genezake ni informazio hori eta pertsonen arteko bitartekaria naizela. Katalogazioan, aldiz, informazio hau sailkatu behar da, liburuak kontrolatu, non kokatuta dauden jakin. Gaur egun jendea liburutegira zerbaiti buruz galdeztera etortzen denean, katalogazioa falta denez, oso zaila da liburuak aurkitzea. Arau batzuk bete behar dira liburutegietan eta hori da katalogazioa.

Zer aurkitu duzu liburutegian?

Gaszte jendearendako liburu asko dago, baita entziklopediak ere, baina liburu zahar asko ere badago. Jendeak nobela eskatzen du batez ere, eta nobelari dagokionez asko berritu behar da.

Zer adinetako jendea etortzen da?

Batez ere gaztetxoak dira liburute-



Lurdes Alberdi udal liburutegian ari da lanean.

gia erabiltzen dutenak, 10-14 urte ingurukoak, baina uste dut liburutegietara, orokorrean, ez Antzuolan bakarrik, jende gehiago etorriko litzatekeela gauza gehiago eskainiko balira. 17 urtetik gorako jendea ez da liburutegira etortzen.

Katalogaziorako lan handia duzu?

Bai, lan handia da orokorrean katalogazioa. Gainera, dena informatizatu

behar da, baina prozesua nahiko poliki doa. Horregatik egunean zazpi orduz egoten naiz hemen, eguerdiko ordubatek arratsaldeko zortziak arte.

Irailean oraindik udako ordutegia dago, 6tatik 8etara, baina datorren hiletik aurrera neguko ordutegia ezarriko dugu: astelehenetik eguakitzera arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara.

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

“Jendeak nobela eskatzen du batez ere, eta nobelari dagokionez asko berritu behar da”

.....Berrigara Gida 2001

Berrigara Gida 2001, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestatzen dihardugu.

Uxue Zabaleta eta

Uxue Lazkano (argazkian)

arituko dira komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko dituzte.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2001 liburutxoak:

Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97**.



Berrigara

Jubilatuak jardunean

Zuzendaritza osatzen duten batzordeek ekitaldi ugari antolatzen dute

San Joxepe jubilatutako askoren bilgune bihurtzen da egunero. Batzuk kafe bat hartzera joango dira, besterik gabe. Badira bertako abesbatza kantatzera animatu direnak ere. Beste batzuk informatikako ikastaroa dute. Urteko hainbat ekitaldi antolatu behar eta bilera egi dute beste batzuk. Kanpoaldeko eserleku eta mahaiek ere konponketa beharra zutela eta, lanean topatu dugu beste kuadrila bat. Sartu-irten etengabea, azken batean.

Ez dira, ez, geldi egotekoak Bergarako jubilatutakoak. San Joxepe elkartearen urte guztian zehar ekitaldi ugari antolatzen dituzte. Gaur egun alargunen elkarteak Seminarioan duen egoitzan 1972an sortu zenetik, ibilbide luzea egin dute, eta aldatu ere aldatu da elkartearen beti ere hobetzea da euren helburua, eta gizartean present egotea. Hasiara hartako irteera eta mus txapelketek gain, egitarau zabalak antolatzen dituzte gaur egun. Handik laupabost urtera joan ziren gaur egungo egoitzara, San Joxepera, eta izen horixe hartu zuen elkarteak ere. Tomas Sebal izan zen elkartearen lehenengo lehendakaria, elkartearen eratu zenetik 1982. urtera arte.

Baina garai hartatik hona asko aldatu dira gauzak. Duela lau urte izan zen aldaketarik handiena, 1996an hain zu-

zen ere. Ordurarte Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku zegoen elkartearen, eta Aldundiko pertsona batek zuzentzen zuen egoitza. Orain, berriz, euren esku dago dena.

JUBILATU AKTIBOAK HELBURU

Tomasa Zabaleta da elkartearen lehendakaria orduetik. Aldaketa handiena egituraren aldetikoa izan da bere esanetan: "elkartearen beraren egitura aldatu egin dugu, egitura partizipatibo bat bilatzen dugu eta". Horregatik, bost batzorde eratu zituzten, bakoitzak bere arloa lantzen duela. "Gure helburua ahalik eta jende gehienak San Joxepen aktiboki parte hartzea da", dio Tomasak.

Zuzendaritzak urteko planifikazioa egiten du, eta gero, batzorde bakoitzak bere arloan egokiena iruditzen zaiona



egiten du planifikazio horretan oinarrituta. Zera esan digu Tomasak: "ni proiektu konkretuak aurkeztearen aldekoa naiz, eta horixe egiten dugu. Jendearen partehartzea bultzatzeko horixe da egin behar dena".

San Joxepe elkartearen helburua euren egitarau present daudela erakustea da, horixe da aldarrikatzen dutena. Hobetze helburuak finkatzen dituzte, eta urtetik urtera aurrerapausuak eman. Zabaletak horrela azaltzen digu euren helburua: "gu gizarteko parte garen heinean, gizarte horretan parte hartu behar dugu, era aktiboan, gainera; nik uste dut partehartzaile eta aktibo izateak gazteago mantentzen duela pertsona".



Sartu-irten etengabea nabari da San Joxepe elkartearen. Ezkerreko argazkian, hasi berri den informatika ikastaroko ikasleak.

JARDUERA UGARI

Aurten ere urrian egingo dute Hamabostaldi Kulturala. Inñaki Eguren elkarteko kideak esan digunez, "lan gehien ematen diguna da hamabostaldi hau". Baina urte guztian zehar antolatzen dituzte ekitaldi eta jarduerak.

Euren beste lehenetasunetako bat heziketa. Jende askok parte hartu izan du urtero-urtero yoga eta eskulanetako ikastaroetan. Baina harantzago joan nahi izan dute; urrats berri bat eman zuten iaz aspektu horretan, eta informatika gela bat jarri. Hamar ordenadore dituzte, eta hasi dute dagoeneko bigarren ikastaroa. Kurtso berri honetan 32 ikasle ari dira informatikako oinarrizko ezagutzak jasotzen. Baina ez dira horretara mugatzen. Interneten mundua ezagutzeko aukera ere izan zuten iazko ikastaroan. Tomasaren ustetan, "gizartea denok osatzen dugu, eta guri generazio gazteagoekin bizitzea tokatu zaigu; eta, era berean, baita teknologia berriekin ere. Informatika gela hau jartzeari erronka berri bat izan da, eta ikus daiteke gu ere gai garestu teknologia berri horiek erabili ahal izateko".

ALDIZKARIA, ERRONKA BERRI BAT

Informatika gela jartzearekin batera, beste berrikuntza bat ere egin nahi izan du elkarteak: hiruhilabetekari bat kaleratzea. Hor dago aldizkariaren kasua: lan-taldea antolatu, lana banatu eta bakoitzak bere ardurak hartzen ditu. Gaur egun dozena bat lagun ari dira bertan lanean. Eurak idazten dituzte albisteak, kolaborazioak topatu, argazkiak atera eta eskaneatu, eta baita maketatu ere. Aldizkariari izen bat jarri behar, eta euren filosofiarekin guztiz bat datorren izena aukeratu zuten: Hobetzen. Hori xe baita euren helburua, hobetzea.

Aldizkari hau elkarteko kideen artean banatzen da, eta hauek informatuta edukitzea bilatzen da: egingo diren ekitaldiak, ikastaroak, irteerak e.a.<



San Joxepe elkartearen helburua eurak ere gizartean present daudela erakustea da, gizarteko partaide aktibo izan nahi dute



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

KONDE

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A**AGOITZ**
Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Lizarralde eta Gomez Euskal Herriko Goitibehera zirkuituko txapeldunak

Zapatuan Angiozarren jokatuako proban 2. postuan sailkatu ondoren, Iñigo Lizarralde bergararrak eta Mikel Gomez atxabaltarrak Euskal Herriko Goitibehera Txapelketa eskuratu dute. Euskal Herriko txapelketaren zirkuituaren barruan, hiru proba jokatu dira: aurretik Hazpainen bigarren eta Urnietan garaile izan ziren.



Iñigo Lizarralde eta Mikel Gomez Angiozarren jasotako trofeoarekin.

Zapatuan, Angiozarren, 12 bikote izan ziren lehia eta bikoteek 2.800 metroko ibilbidea bete behar izan zuten Asentziotik Angiozarre bitartean. Entrenamendu saioa eta bi txanda ofizialak jokatu ostean, Galda-kaoko Aitor Billotak eta David Martinezek lortu zuten garaipena, bi minutu, 46 se-

gundu eta 34 ehuneneko denbora eginez beraien lehenbiziko txandan. Lizarralde eta Gomezek 2:50:07 markatu zuten aurreneko txandan eta 2:47:84ko denbora bigarrenetan. Batez beste, 60 km/h.ko abiadura markatu zuten txapeldun berriek. Bestalde, Andoni

Olabarria bergararrak eta Jose Antonio Flores hernaniarrak osatutako bikotea hamargarren postuan sailkatu zen zapatuko proban. Sailkapen orokorrean zazpigarrenak izan ditugu.

Bikote txapeldunak aurreneko aldiz hartu du parte Euskal Herriko goitibehera


txapelketan eta emaitza ezin hobea izan da. Iñigo Lizarralde adierazi digunez, "azkenean sailkapeneko lehenbiziko hiru bikoteen artean egon da txapelketa eskuratzeko borroka eta oso pozik gaude txapeldun izatearekin. Txapelketa Hazpainen martxan jarri zenean irabazteko aukera izango genuela ikusi genuen eta gure asmoak bete dira". Zapatuko proban bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren: "uste baino denbora hobea egin genuen baina aurkari gogorrak izan genituen". Iñigoren iritziz, proba luzeagoak aproposagoak dira beraien goitibeheraren ezaugarrientzat: "goitibehera astuna daukagu, 200 kilo ingurukoa, eta proba motzetan irteeran denbora piskat galtzen dugu".

San Martin ziklismo saria domekan

Domekan, goizeko 10:30ean hasita, San Martin txirindulari sariaren 35. edizioa jokatu da. Probari San Lorentzon emango zaio hasiera eta helmuga ere bertan kokatu da, txirindulariek 108 kilometro egin ondoren. 110 bat afizionatuk hartuko dute parte domekan eta, bezperan, Oñatin beste proba bat jokatu denez, sari berezi bat izango da bi probetan punturik gehien lortzen duenarentzat. Proba 13:15 aldera amaituko da.



Eskuman, Iban Latasa (Telcom), iazko irabazlea.



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

ZUBIAURRE

aroztegia

- Aulki eta mahaian erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atekak.
- Neurritza egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztiak arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

Labegaraietako XV. Futbito

Txapelketa martxan asteburuan

mahoneroak



JOSETXO LIZARRALDE
BKEko jokalaria

Bihar, zapatua, Bildurbarek Opel Lam taldeak eta Errotagainen, 19:00etan, jokatuko duten partiduak hasiera emango dio aurtengo futbito txapelketari. Iazko txapelketan Errotagainen liga txapelketa eskuratu zuen eta Bildurbarek taldeak kopako finala irabazi zuen, Errotagainen aurka.

Aurtengo edizioan partaidetzak zertxobait behera egin du. Joan zen urtean 40 talde izan ziren lehian eta aurtun, berriz, 35 talde eman dute izena. Ohizkoa den bezala, liga txapelketan, multzo bakoitzeko talde guztiek elkarren aurka jokatuko beharko dute. Sailkapenaren arabera, kopa txapelketa jokatzeke kanporaketak zehaztuko dira.

5 JOKALARI

Aurtengo nobedade nagusia jokalaria titularren kopurua datza; orain arte sei jokalaria ziren zelairatzen zirenak baina antolaketak kopuru hori boztera murriztea erabaki du. Beraz, talde bakoitzeko, atezaina eta lau jokalaria kantzaratuko dira aurtun. Atezainak areatik irreteteko edo golak sartzeko aukera izango du hastear dagoen denboraldian. Astebukaera honetan 15 partidu jokatuko dira Labegaraietako Kiroldegan.

Asteburu honetako partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

19:00. Errotagainen-Bildurbarek	Amoskibar
20:00. Amoskibar-Irubide jatetxea	Bildurbarek

DOMEKAN BARRUAN

09:30. Torrekua-Bar Ugarte	Buya
10:30. Buya-Apa Oxemai	Pinturas Bergara
11:30. Pinturas Bergara-Tom Cat Argandolas	Agirrebeña
12:30. Agirrebeña jatetxea-Kanpazar Harrob	Tom Cat Argandolas
16:00. Aterpe-Vacalouras	Mongatxurrak
17:00. Mongatxurrak-Mo(ko)lotov	Ezinleike
18:00. Artusamak-Ezinleike	Ortzi
19:00. Ortzi-Manitu	Eri
20:00. Eri-Pagomendi	Manitu

DOMEKAN KANPOAN

09:30. Txipiron-Patxaran Team	A Ze Flaxa
10:30. A Ze Flaxa-Latex	Guadalest
11:30. Guadalest-Shaktale	Suntzitzaileak
12:30. Amilotx-Suntzitzaileak	Shaktale

Nire ustez, zapatuan, merezimendu osoz irabazi genion Bermeori Agorrosin. Uste baino hasiera hobea eman diogu aurtengo ligari, jokatutako hiru partiduak irabazi ostean, liderrak baikara. Ezin gehiago eskatu. Joan zen urtean hartutako esperientzia eta sistema aldaketa ere taldearen onerako izan dira. Gu ere piskat harrিতa gaude izan dugun hasierarekin. Dena den, gutxienez 45 puntu lortu arte ezin gara lasaitu, liga hasi baino ez da egin eta. Domekan denboraldiko partidurik erakargarrienetakoa jokatuko dugu, Sestaoko zelaian izugarriko giroa egoten delako. Gainera, joan zen denboraldian, 10 jokalariren kontra galdu egin genuen han.

Aurtengo multzoak eta taldeak

A MULTZOA

Buya
Bar Canalejas
Apa Oxemai
Errotagainen
Irubide jatetxea
Eri
Bar Ugarte
Torrekua
Pagomendi
Amoskibar
Bildurbarek Opel Lam
FAC

B MULTZOA

Pinturas Bergara
Bayer
Tom Cat Argandolas
Amilotx
Kanpazar Harrobia
Aterpe
Manitu
Ortzi
Vacalouras
Agirrebeña jatetxea
Suntzitzaileak
Etengabe

C MULTZOA

Mongatxurrak
Komando Piperrak
Mo(ko)lotov
Guadalest
Ezinleike
Txipiron
Latex
A Ze Flaxa
Patxaran Team
Artusamak
Shaktale



Bermeoren aurkako partiduan hauek nabarmendu ditugu:
Josetxo Lizarralde 3 puntu
Markel Egaña 2 puntu
Arkaitz Arana 1 puntu
Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Luis Angel Lavin kantabriarra San Martin kroseko irabazle

Santanderreko Luis Angel Lavin korrikalariak irabazi zuen zapatuan herriko kaleetan jokaturako San Martinetako krosa, senio-
ren mailan. Lavinek 27 minu-
tu eta 50 segundu behar
izan zituen ibilbideko 9.120
metroak betetzeko. Mari
Karmen Garcia arrasatearra
izan zen lehen emakumea,
39 minutu eta 11 segundu-
rekin. Bergarako lehena Ai-
tor Sotil izan genuen
(32'31''). Junior mailan
(4.560 m.) Jon Beistegi eta
kadete eta infantiletan
(1.700 m.) Eloy Crespo eta
Raul Sanz bergararrak nagusi
ziren. Bestalde, Ander
Retolaza, Antxon Ugalde eta
Ander Plazaola izan geni-



Luis Angel Lavinek txapela jantzi zuen zapatuan.

tuen alebin mailako one-
nak. Guztira, 105 partaide
izan ziren Zaleak taldeak
antolatutako proban. Proba
amaieran Nere Amaia Zaba-
la kirol zinegotziak eta Mi-

guel Angel Muela Zaleak
taldeko ordezkariak trofeoa
eta txapela eman zioten La-
vini. Taldekako lehen sa-
ria Pielagos taldeak lortu
zuen.

Shotokan kara- teko ordutegia

Shotokan karate
taldeak ordutegi berria
dauka: astelehen, eguaz-
ten eta eguakitzetan en-
treatuko dira Miguel
Altuna berrian, 17:30etik
18:30era 5-8 urte bitarte-
koak, 18:30etik 19:30era
(9-12 urte) eta 19:30etik
20:30etara 13 urtetik go-
rakoak.

Igerilekuetako gimnasioa

Udal igerilekuetako
gimnasioan entrena-
mentu kardiobaskula-
rreko hiru makina
daude. Aholkularitza fi-
sikorako zerbitzuak
martxan jarraitzen du.
943 77 91 67.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Intxurre

Lehen mailako jubenilak
Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Eibar

Ohorezko jubenilak
Zapatua. 17:15. Ipintza

Bergara-Eibartarrak

Infantilak
Domeka. 11:30. Ipintza

PILOTA

Bergara-Aretxabaleta

Klubon arteko txapelketa.
Kadete 2. maila eta jubenil 2. maila.
Gaur, eguakitza, 20:00etan
Udal Pilotalekuan.

SASKIBALOIA

Bergara-Iraurgi

Kadete mutilak
Domeka. 10:30.
Mariaren Lagundia

ESKUBALOIA

(lagunarteko partiduak)

Bergara-Arrasate

Kadete mutilak
Zapatua. 16.15. Kiroldedia

Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldedia



Gaztela eta Leonekoak onenak

Gaztela eta Leoneko taldeak lortu zuen puntuaziorik onena domekan jokaturako Bergara Hiria Xake txapelketaren XXIX. edizioan. Bigarren postuan arrasatearrak sailkatu ziren eta hirugarren tokian Eibarko taldea izan genuen. Bestalde, Bergarako taldea ordezkatzan zuten Jabier Bizarro, Juanma Garcia, Roman Labaien eta Jabier Ugarte jokalariek ez zuten zorte gehiegirik izan eta 12. postuan geratu ziren. Bestalde, selekzioen arteko neurketan, Goierrikoak eta Debakoak zarpina puntu berdindu zuten. Zapatuko selekzioen arteko txapelketan, berriz, 18 urterartekoetan artean, gipuzkoarrak nagusitu ziren eta 14 eta 16 urterartekoetan arabarrak izan ziren onenak.

Tenis pista erreserbatzeko

Hemendik urte bu-
kaera bitartean Kiroldegiko
tenis pista astero
erreserbatzeko aukera
dago. Izen-ematea iraila-
ren 29ra arte zabalik. Ar-
gibideak: 943 77 91 67.

Ariznoa gimnasia

Ariznoa gimnasia
eritmiko taldeak entrea-
namendu saioak marti-
tzen, eguen eta eguaki-
tzetan egingo ditu. Tal-
deko partaide izateko
interesa nahi duten 5 ur-
tetik gorako neskatilek
943 76 56 75 (Jabi Artea-
ga) telefonoan eman de-
zakete izena.

GIARTZU GIMNASIOA

00-01 ekitaldia

Ordua	Astelehena	Martitzena	Eguaztena	Eguena	Eguakitzza
07:30	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak Maria Isabel	Mantenimendua Maria Isabel	Aerobica Abdom./luzaketak Maria Isabel	Mantenimendua Maria Isabel	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak Maria Isabel
08:15	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak Maria Isabel	Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa Maria Isabel	Aerobica Abdom./luzaketak Maria Isabel	Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa Maria Isabel	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak Maria Isabel
09:00	Aerobica Gluteoak Abdom./luzaketak	Mantenimendu aerobikoa	Stepa Abdom./luzaketak	Mantenimendu aerobikoa	Aerobica Gluteoak Abdom./luzaketak
10:00	Jubilatuak	Jubilatuak		Jubilatuak	
11:00	Mantenimendua Indartze orokorra	Makinak Indartze orokorra	Mantenimendua Indartze orokorra Abdominalak	Zirkuitoa Makinak TBC	Mantenimendua Luzaketak Lunbarrak
15:00	Stepa Abdominalak Lunbarrak Gema	(15:15) Mantenimendua Gema	Interval Zirkuitoa Gluteoak Gema	(15:15) Mantenimendua Gema	Stepa Abdominalak Lunbarrak Gema
17:00	Stepa Gluteoak Abdominalak Nerea	Gazteendako aerobica Nerea	Zirkuitoa Interval Luzaketak Nerea	Gazteendako aerobica Nerea	Aerobica Abdominalak Luzaketak Nerea
18:00	Umeendako eta Gazteendako Karatea Iñaki/Luis	Stepa Abdominalak Gluteoen luzaketa Gema	Umeendako eta Gazteendako Karatea Iñaki/Luis	Aerobica Zirkuitoa-Stepa Indartze orokorra Gema	Umeendako eta Gazteendako Karatea Iñaki/Luis
19:00	Stepa Abdominalak Luzaketak Gema	Interval Zirkuitoa Abduktoreak Gema	Stepa Abdominalak Luzaketak Gema	Aerobica Gluteoak Abduktoreak Gema	Interval Zirkuitoa Abdominalak Gema
20:30	Stepa Abdominalak Lunbarrak Gema	Interval Zirkuitoa Gluteoak Abduktoreak Gema	Aerobica Abdominalak Lunbarrak Gema	Interval Zirkuitoa Abduktoreak Flexioak Gema	(20:00etan) Stepa Abdominalak Lunbarrak Gema

Pesak eta muskulazioa 19:30etik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara astelehenetik eguakitzera

Eta ikasleek (25 urte arte) prezio bereziak!



Giartzu

Gimnasioa

Boni Laskurain 3

Telefona: 943 76 35 71

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Matxiategi.
943 76 11 01.

Barrenkalea.
656 732 026 (egunez)
edo 943 35 39 91 (gauez).

Barrenkalea.
943 76 44 34.

Aranerreka. Jantzia.
75 m². 629 655 195.

Zubieta. 646 516 192.

Pisua garajearekin, Ara-
nerrekan. 943 76 07 77.

Iraburun (Bolu), 87 m².
943 76 08 47.

EROSI

Etxea erosiko nuke Ber-
garan. 943 76 38 25.

Herri erdialdeko lehen
solairu bat edo etxabea
erosiko nuke.
609 413 211
(20:30etik aurrera).

ERRENTAN EMATEKO

Apartamentu txikia Ma-
txiategin. 943 76 12 05
(20:00etatik aurrera).

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Etxeko logelak aloka-
tzen ditut. 943 76 43 95.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua alokairuan hartu-
ko nuke. 678 212 657.

Pisua hartuko genuke
alokairuan Bergaran.
696 782 176 (Loli) edo
630 712 318 (Marta).

Etxea alokatuko nuke.
Jantzia. 90.000 pta.
arte ordaintzeko gertu
nago. Presazkoa da.
Deitu 649 790 901
telefonora.

Etxea alokatu edo ero-
siko nuke Bergaran edo
inguruan. 94 446 43 84
/ 659 506 679.

Etxea alokatuko genuke
Bergaran edo Antzuo-
lan. Deitu 943 76 39 16
telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Pisu bila dabilen neska
bat naiz. Alokairuan
daukazun pisua osatze-
ko lagun baten beharre-
an bazaude deitu
iezadazu 20:00etatik
aurrera. 656 773 637.

2. GARAJEAK

SALDU

Aranerreka. 943 76 24 84.

ERRENTAN EMATEKO

Santa Marina.
Deitu 943 76 37 69
telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal
komertziala hartuko
nuke alokairuan, 40-60
m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala alokairuan herri
erdian. 120 m².
617 025 376.

Koldo Eleizalden, be-
hea, 50 m². 943 76 37 69.

4. LANA

ESKAINTZAK

Emakume edadetuak
zaindu eta etxeko lanak
egingo nituzke.
943 76 06 92 (Amaia).

Garbiketak egiten lan
egingo nuke.
Deitu 943 76 53 18
telefonora.

Arratsaldeetan umeak
zainduko nituzke.
943 76 13 46.

Umeak zaintzen edo
antzeko zerbaitetan lan
egingo nuke.
Deitu 943 76 00 90
telefonora.

Tabernan, tailerrean
edo dendan lan egingo
lukeen 35 urteko mutila
naiz. Esperientzia.
Informatika ezagutzak.
610 972 250 (Antxon).

Geriatrian espezializa-
tutako klinika laguntzai-
leak zaharrak edo gai-
soak zainduko lituzke.
Deitu 609 770 133
telefonora.

Neska garbiketa lanak
egingo lituzke jatetxe
batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke
uztailetik irailera bitar-
tean. 943 76 39 91.

ESKAERAK

Neska behar da umeak
arratsaldez zaintzeko.
943 76 07 69.

Neska behar da goize-



ARRI

**Industri
hornidura**

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.

**Martxan dagoen
negozioa**

**ALOKAIRURAKO
edo TRASPASORAKO**

**Santalaizen
487 m²**

943 76 49 99



ANDVZY

ANDUZU S.L.
ERAIKUNTZAKO MATERIALAK
Simon Arrieta 1, 4-C
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era gutzietako kargak

Euskara errefortzuetarako boluntarioak

**Jardun elkarteak euskara errefortzuetarako begirale
boluntarioak behar ditu.**

EGINKIZUNAK

Astean zehar ikastetxeetan hurrekin lan egin.

AGIRIAK

Ikasturtearen buruan agiriak banatuko zaizkie boluntario denei.

ABANTAILAK

Jarduneko lan poltsan lehentasuna izango dute aurkeztutako boluntarioek.

**Interesatuok, eman izena Jardunen.
Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g
943 76 08 19**



tan umeak ikastolara bidaltzeko. 943 76 58 77 (gauze).

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 28 05 / 33 27.

Antzuolan, pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Deitu 943 76 61 04 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059 (18:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak ematen ditut. Esperientzia. 943 76 30 28 / 659 331 741 (Ana).

Klase partikularrak ematen dituguz. 943 76 31 31 (Juanma) edo 943 76 42 08 (Nere).

Alemaniera klaseak ematen ditut. 943 76 91 33 / 93 74 (Ildoa).

LH eta DBHko 1. ziklorako eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 943 76 39 61 telefonora.

ESKAERAK

Conta Plus klaseak hartuko nituzke. 943 76 27 51.

Ingeniaritzako ikasleak kimikako eskolara hartuko lituzke. 943 76 22 95.

6. IBILGAILUAK

SALDU

VW Polo Diesel (SS-AX). 609 541 613.

Kawasaki Volla 800 motoa salgai. 900.000 pta. 943 77 08 69.

Opel Corsa (SS-AM). 943 76 52 31 (gauze).

Opel Kadett 1.6S (VI-K). Berunik gabe. Egoera ona. 200.000 pta. 619 149 730.

Kawasaki ZZR 600 motoa. Egoera ona. 667 200 768.

Opel Kadett (SS-AL). 667 088 484.

Opel Corsa 1.3. 200.000 pta. 943 78 71 31.

Seat Ibiza 1.2i. 1992. 60.000 km. 400.000 pta. Deitu 943 76 50 86 telefonora.

Kawasaki GPZ 500 motorra. Egoera ona. 943 76 71 21.

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

7. ANIMALIAK

SALDU

Sei hileko hyspaniel arra, 11 hileko seter ingeles emea eta urte eta erdiko pointer emea. 943 76 37 70.

Katu persak, 2 hilabete-koak. Prezio ona. 943 76 33 58 (Natalia).

BESTELAKOAK

Bi urteko katu siamesa opari, ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

8. DENETARIK

SALDU

Erremolkea. Oso merke. 943 76 12 01.

Tronpet berria. 943 78 70 52.

Genio 2000. Prezio ona. Deitu 943 78 70 52 telefonora.

Ileapaindegiko altzariak

eta materiala. Merke. Deitu 943 76 25 38 telefonora.

Lasterketetako bizikleta. Prezio ona. 943 76 23 68.

Marratzeko mahaia eta aulkia. 943 76 41 96.

Play Station: txipa, 2 aginte eta jokoak. Deitu 666 466 969 telefonora.

Wip-it piragua. Osagarriekin. 150.000 pta. 943 79 78 36.

San Marco bizikletako eserlekua; larrua, jela. 5.000 pta. 943 76 07 50.

Egongelako altzaria. la berria. 2,8 m. luze. 943 76 41 31.


EROSI

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosi-ko nuke (bikientzat). 677 367 733 (Irika).

Bigarren eskuko ordenagailua erosi-ko nuke. 943 76 47 67.

AURKITU

Erlorua topatu dut Gorlan. 943 76 25 01.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

AUTOBUS GIDARIA
Urola Garaia. 35537/3

JUNIOR PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 37740/3

ESTETIZISTA
Urola Garaia. 36112/6

ILEAPAINATZAILEA
Ibai ezker alde. 37873/3

GOI MAILAKO ZIKLOA INDUSTRIA ARLOAN, 4
Urola Garaia. 36377/4

TELEKOMUNIKAZIOETAKO GOI MAILAKO INJINERIA
Arrasate. 38C78/2

MEKANIKARIA
Bilbo. 36529/4

MARKETING ETA SALMENTETAKO TEKNIKARIA
Donostia. 38097/1

FISIKA EDOTA INJINERITZAN LIZENTZIATUA
Arabar lautada. 37148/6

TORNULARIA LHII
Deba behe. 37937/1

INJINERU TEKNIKO EDOTA GOI MAILAKO
Bilbo. 37583/4

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 37885/2

PIANO MONITOREA
Arabar lautada. 37607/2

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 37883/2

MEKANIKA. Lanbide heziketa II
Goierri. 37732/3

INFORMATIKA IRAKASLEAK 2
Deba Garaia. 36927/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Irakasleak:

Panderoa: Aitziber Gezalaga
Soinua: Eider Zubillaga

Noiz:

urriaren 2an hasi eta ekainaren 23an bukatu

Non:

Kartzela zaharrean




Egunak:

Panderoa: Astelehen eta eguakitzetan, 16etatik 21etara
Soinua: astelehen eta eguaztenetan, 17etatik 21etara; zapatuetan, 9etatik 14etara

Prezioa:

Panderoa: 1.900 pta. hilean
Soinua: 2.650 pta. hilean



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Etxebizitza berriak Antzuola erdian

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak
- 18.000.000 pezetatik aurrera

Arrasateko kafetegi batean

ZERBITZARIA eta SUKALDARIA

behar dira
943 79 11 15

Jatetxe batean SUKALDARIA

behar da
943 76 59 19

Eguakitzetik domekara luzatuko da punk-rock musika jaialdia Jam aretoan

Europa eta estatuko 25 taldek hartuko dute parte "Holidays in the sun" en

"Holidays in the sun" kontzertu erraldoia egingo da Jam-en asteburuan. 1970eko hamarkada amaierako punk-rock ingelesaren jarraitzaileentzat parada ezinhobea. Atzerriko zein bertako 25 taldek hartuko dute parte.

Nazioarteko makro kontzertu hau Bergarara nola heldu den galdetuko du askok. Antolatzaileen esanetan, munduan zeharreko hainbat herrialdetan egin ostean, Europako hegoaldera jaisteko ordua zen. Horrela, Europako hegoaldean toki aproposa aukeratzeko orduan, Euskal Herriko bailara hau iruditu zitzaien egokiena, hauxe ei da eta punk-roklean indar handieneko guneeetako bat.

EGUN BAKARRERAKO SARRERAK

Bi motako sarrerak daude: hiru egunetarako sarrera, 17.500 pezetaren truk eta egun bakarrerako sarrera 6.500 pezetaren truk. Hasiera baten soilik hiru egunerakoak saldu behar baziren ere, jendearen eskaria dela medio, Wilma Producciones, jaialdiko antolatzaileek, egun bakarrerako sarrerak salgai jartzea erabaki dute.


Antolatzaileen arabera, 500 edo 600 pertsona etorriko dira herrira. Taldeetako partaideek Bergara eta inguruko herrietan hartuko dute ostatu. Ostaturik izango ez duten 150 laguntzat kanpinga antolatu dute antolatzaileek, baina ez San Martzialen, zabaldu izan den bezala, Udalak ez baitu baimenik eman.



"Sick boy" (goian) eta "Oximoron" taldeek eta beste 23 gehiago igoko dira Jam aretoko taula gainera.



Jam aretoko atepak eguakitzean irekiko dira, arratsaldeko 18:30ean, eta honako taldeak entzuteko aukera izango dute bertaratutakoek: The Devotchkas, Suburban Rebels, La Broma de Satan, Cockney Rejects eta Slaughter & The Dogs. Zapatuan eguerdiko 14:30ean irekiko dira atepak eta taldeak honakoak izango dira: Aerobitch, Segismundo Toxicomano, Vicious Rumours, The Casualties, Klasse Kriminale, Splodgenessabounds, Peter & The Test Tube Babies, The Boys, Cocksparrer, MCD eta Commando 9mm. Domekan, Sick Boy Federation, The Stains, 37 Hostias, Escuela de Odio, Red alert, Oxymoron, Angelic Upstarts eta The Business.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ileapaindegia

eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



Karmele Perez eta Mikel Ibarzabal, *Printze txikia* eta *Antoine*, obrako pertsonaiak, manipulatu.

Bi bergarar aktore Taupada taldearen "Printze txikia" obran

Mikel Ibarzabal, Karmele Perez eta Eider Urratek, "Printze Txikia" antzezlanaren estreinatuko dute datorren eguakitzean, hilak 29, 22:30ean, Elgoibarko Herri Antzokian Taupada antzerki taldearen zuzendaritzapean.

Taupadaren lana, Antoine de Saint-Exupéryren "Printze Txikia" ipuinaren moldaketan oinarritzen da.

Taupadak orain arte aktore lana bultzatu duen arren, txotxongiloen manipulazio lanean murgiltzen ari da. Bere azken aurreko lana, "Mari Sorgin" eta baita "Printze Txikia" ere, txotxongiloen manipulazioan oinarritzen da.

PANPINGILE ETA AKTORE

Panpinen mundutik datorkie Mikel Ibarzabal, Karmele Perez eta Eider Urrateri Taupadarekiko lotura hau. Mikel Ibarzabal eta Eider Urratek Kuma taldea osatzen dute, eta Kar-

mele Perezek hainbat urte eman ditu Taun-Taun antzerki taldean. Mikel Ibarzabalek txotxongiloak, eskenografia eta dekoratuaren egitura egiteaz gain, aktore lana egingo du obran. Bi pertsonaia interpretatuko ditu: *Studur Gorri* eta *Antoine*, eta Karmele Perezek beste bi, *Printze Txikia* eta *Ni neu*. Bi aktoreek erabiliko duten manipulazio teknika mahaia gainekoa eta barilakoa izango da. Eider Urrate, bestalde, obrako soinu eta argi teknikaria da, eta Mikel Ibarzabalekin batera, txotxongiloak, eskenografia eta dekoratuaren egitura egiteaz arduratzen da.

Obra aurrera eramateko, martxoan hasi ziren panpin eta egiturak egiten. Entsaiekin, aldiz, uztailean.

Eurak esandakoaren arabera, horrelako lanekin gustura dauden arren, antzerki talde propioa izatea nahiko lukete.

erreseinak



Juan Luis Zabala
Agur, Euzkadi
Eleberria

Lauaxeta 1997. urteko Euskal Herri-
ra agerrarazi du Juan Luis Zabalak
bere laugarren nobelan. 60 urtetan
kontu asko aldatu dira, hildako ba-
ten jakinmina pizteko bezainbeste
bai, behintzat. Orain, ezerezetik bat
batean jalgia, plaza bateko bankuan
eserita berpiztu berria da, gerra au-
rreko traje dotorez jantzita, gorbata-
dun eta betaurrekodun, baina fusila-
tu zutenean aurpegia estaltzen zion
bizarraren aztarrenik gabe; eta ez
zekien non eta noiz berpiztu zen.

- Susa. 159 orr. 1.900 pta.



Jauro Barik
Jauko barik
Rock

Rock munduan sortzen den mila tal-
de bakoitzeko bat bakarrik da nes-
kez osatua. Haizea, Enara eta Itsa-
sok osatzen dute horietako bat: Jau-
ko Barik. Hirukote honek lotsagabeki
galbahetzen ditu punk, metal, pop
zein rock doinuak kantutako osatzeko.
Nahasketa horren fruitua, musika
fresko eta indartsua da. Jesus Ordo-
vasek Radio 3erako deitu eta handik
berehala egin zuten Madrilerako
jauzia. Neska talde honen lehenen-
go diskak taldearen izena darama,
Jauko Barik. Madrilen grabatu zuten
aurtengo martxoan. Diskoa hamahi-
ru abestiz osatuta dago, euren sor-
tutako hamairu kanta intimo eta
adierazkorrez.

- Esan Ozenki Records. 2.100 pta.

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerrek 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Solaskide. 2. Enara. Gogo bizi, irrika. 3. Higatu. Bokala. 4. Toka, duzu. Zimurrak kendu.
5. Iparraldean, nekatu. Nor atzikia. 6. Aurreneko bakoitia. Bokala. Ez ar. 7. Landetako herria. Barazki-mota.
8. Kontsonantea. Potasioa. Txalupa. 9. Dut, hari. Santu.
10. Altxa. Barazki ezaguna.

Goitik behera

1. Sartalde. 2. Bizitasunik gabeak. Iridioa. 3. Droga.
4. Nazioarteko garraioetan. 1999an. Titanioa.
5. Nekeza. Ebroren hasieran. Kontsonantea. 6. Bokala. Guraso arra. Erne! 7. Ukitu. Arnas ezak hil. 8. Beldurra. Emakume izena. 9. Bostehun eta bat. Zoritzarrez.
10. Bokala. Egokiera. Bokala.

Soluzioa

10. E. Aukera. A.
 Elena. 9. Di. Tamalez.
 Adri. 7. Kutsu. Ito. 8. Iza.
 5. Zaila. Eb. K. 6. A. Alta.
 3. Narkotikoa. 4. TIR. Iaz. TI.
 1. Mendebalde. 2. Ilaunak. Ir.
 Goitik behera
 10. Eraiki. Aza.
 Batela. 9. Dior. Done.
 Eme. 7. Akize. Ilar. 8. L. K.
 5. Enoiatu. Ak. 6. Bata. A.
 3. Narratu. A. 4. Duk. Lisatu.
 1. Minzakide. 2. Elara. Uzi.
 Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein kaletan dago pintura estudio hau eta norena da?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein urtetan sartu zen Bergarako Udala EUDIMAn?
 A- 1995ean
 B- 1997an
 C- 1998an
2. Goitibehera zirkuituko zein proba irabazi zuten Lizarraldeak eta Gomezek?
 A- Hazparnekoa
 B- Urnietakoa
 C- Angiozarrekoa
3. Nork idatzi zuen Taupada antzerki taldeak egokitutako "Printze txikia"?
 A- Jean Cocteau
 B- Alejandro Dumas
 C- Antoine de Saint-Exupery



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Antoni Zabarterentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Antoniri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
 Bonofotoa: **Muñondo Gaiñekua**
 Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Koipe
 oliba olio 1º, litroa
349 PTA!
 Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Maidar 24 urteko urretxuarra dogu, eta duela urtebete pasa hartu zeban Bergarako Gazte Informazio Buleguaren arduria. Pedagogoa da, eta gaur egunian pedagogi zerbitzuak eskaintzen dittuan Armintz enpresa dauka.

Zure lanian zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Jendiarekin egotia eta nire lanak eskatzen dosten informaziñua bilatzia, ezin zara gelditi egon.

Eta gutxien?

Batzuetan lan gehiegi daukadala, eziñezkoa da guztiari aurre egitea, baiña gustora egin ezkerro, ez dago arazorik.

Aldatzekotan, zertan lan egingo ziñuke?

Oraingoz gustora nabil eta ez nuke aldatuko, baiña asko gustatzen jat ikastetxeetako lana, ebaluatzaile moduan.

Zure buleguan zer da iñoiz falta ez dana?

Paperak, foiletoak.

Sanmartinak ezagutzen al dittuzu?

Gutxi, aurtan ezagutu dittut.

Denbora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Denbora libre gutxi daukat: edo lana egitten dot, edo ikasi edo juerga. Baiña bidaiatzia asko gustatzen jat.

Egin dozun bidaiarik onena?

Greziara jun nintzanekua.

Txikitari zer izatia nahi ziñuan?

Danetik: ileapaintzaille, bonberua, pedagogia...

Umetako oroitzapenik polittena?

Jolastia, beti kalia ibiltzen nintzan.

Eta txarrena?

Ez daukat oroitzapen txarrik.

Maidar Sedano

Zeure hiru bertute.

Irekia naiz, nere lagunen laguna eta jendiari barre eragitten saiatzen naiz.

Eta hiru defektu?

Umoro aldaketa handiak dittut, umoro txarra be badaukat, eta batzuetan alper samarra be banaiz.

Superstiziosia zara?

Bai, badauzkat nere superstiziñuak.

Horoskopua irakurtzen dozu?

Bai, baiña zerbait ona jartzen dostenian bakarrik egitten jat kaso.

Bikotearengan zer da gehixen apeziatzen dozuna?

Biharra daukatenian hor egotia neri laguntzeko.

Eta zer ez zontzake iñoiz barkatuko?

Gizurrak esatia; gizur txikixak baldin badira, beno, baiña benetako gizurrak...

Zer opari egingo zontzake lagun bati?

Zerbait pertsonala; adibidez, argazki bat markuan sartuta.

Eta zeuk, zer opari jasoko ziñuke gustora?

Bidai bat edo, zerbait txikixa izan arren, nirekin pentsautu egindako opari bat.


Bukatzeke, amets bat?

Orain nagoen moduan jarraitzia, oso pozik nago eta.



POL-POL Taberna

943 76 07 78



- × Ezkontzak
- × Bataioak
- × Jaunartzeak
- × Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- × 150 lagunendako jangela



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tf.: 943 79 24 58


EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA




Harrijasotzaile taldea, 1978

Garai batean harrijasotzaile harrobi bikaina genuen herrian. Argazkia ikustea besterik ez dago. Pedro Salegi entrenatzailearen aginduetara taldeak maila bikaina erakutsi zuen 1978an eta 1979an Bergarako Udal Pilotalekuan jokatu zen Euskal Herriko afizionatuen mailako txapelketan. Bietan ere Iñaki Eguren osintxuerra nagusitu zen. Partaideak 100 kiloko zilindrikoa eta 113,5 kg.ko errektangularrarekin aritu behar izan ziren. Txapelketak ikusmin handia sortu zuen eta sarrera-salmentarekin bildutako

dirua Mizpirualde egoitzara bideratu zen. Goiko argazkia 1978. urteko apirilekoa da eta erretratua Salegik duen marmoleriaren aurrean aterata dago. Ezkerretik eskumara:

Jose Mari Arizabaleta "Bolintxo", Migel Arregi "Kostei", Jesus Iztueta "Laurak-Bat", Jesus Mari Gaztelu "Pisto" eta Iñaki Eguren. Markurtuta Pedro Salegi ageri da.

Argazkia: B.U.A.
Roman Larrañaga fondoa



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak

Horma armairuak

Sarrailak eta manilak

Koadroen enmarkazioak

Era guztietako moldurak

Apalak

Kajoiak

Masterreka 4 behea

☎ 943 76 18 93

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra




Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



6 URTEKO
GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.